

noaua



**Puntu beltzak
identifikatzeko
deia luzatu du
Kafe Tertuliak**

**Azaroaren 27an
manifestazioa
Donostian,
GuraSOsek deituta**



Argazkia: César Marcos.

NOAUA! Kulturaldia

**Beatriz Egizabal igandean arituko da Sutegin:
“Umorea nire erregistro naturala da”**

ERREZITALDI MUTANTEA **Frankenstein agurgarria (Petti eta Ana Galarraga)**

azaroak 11, **OSTIRALA**, 20:00 Suteği



BAKARRIZKETA **Magma Mia. Beatriz Egizabal**

azaroak 13, **IGANDEA**, 18:00 Suteği

FILM EMANALDIA **Black is Beltza II. Ainhoa**

azaroak 18, **OSTIRALA**, 22:00 Suteği

ANTZERKIA **Zeozertan dabil baina ez dakit zertan**

Metrokoadroka kolektiboa

azaroak 19, **LARUNBATA**, 20:00 Suteği



Sarrerak: alde z aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan.

NOAUA!KO KULTURALDIA 2022

**USURBIL
AZAROA**



errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

**Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka**

*Eskatu saskiak eta lagundu
horien balioaren %25arekin
Nafarroa hegoalde eta erdi-
aldeko euskalgintzari.*

**Bat egiteko
garaia da**



Albisteak iruditan

“Amaiur: Nafarroaren independentziaren defentsa” mintzagai

Nafartarrak taldeak “Amaiur: Nafarroaren independentziaren defentsa” zikloa osatu zuen larunbat goizean, hiru hitzaldi eskainita. Lehenaz Idoia Arrieta arduratu zen XVI. mendeko geopolitikaren gainbegirada bi gertaeratik abiatuta aztertu ondoren: Magallaes-Elkano mundubira eta Nafarroaren konkista. Ondoren, Pello Montea-nok Velaz, Amaiurko kapitainari buruzko biografia eta testuinguruaz jardun zuen. Amaitzeko, mahai-ingurua osatu zuten Iñaki Idigoras, Ainara Artetxe, Iñigo Larra-mendi eta Rafa Santxezek.



Nafartarrak taldeak hiru hitzaldi antolatu zituen aurreko larunbatean Sutegin.

Laburrean

1972an jaiotakoen bazkaria, azaroaren 19an Atxegan

14:30ean hasiko da bazkaria baina 13:00ean batuko dira Txiribogan. Bazkaria, Dj-a eta oparitxo bana iragarri dute. Izen-ematea azaroaren 16ra arte. 60 euroko ordainketa egin behar da nork bere izen abizenak adieraziz, Rural Kutxako kontu honetan: ES95 3008 0259 1147 8408 1020.

Azaroaren 26an, 1969an jaiotakoen bazkaria

Maykar jatetxean batuko dira. Izena emateko 50 euro ordaindu behar dira Rural Kutxako ES32 3008 0259 1547 7191 6121 kontu zenbaki honetan. Izena emateko epea, azaroaren 22ra arte. Bazkaria 14:30ean hasiko da baina 12:00etan batuko dira Txapeldun tabernan.

Peña Pagola elkarteko bazkide egiteko aukera

Kalezarko Peña Pagola elkarteko bazkide izateko aukera zabalik izango da abenduaren 15era arte. 18 urtetik gorako edozeinentzat irekita, Usurbilen bizi behar du. Informazio gehiagorako edo bazkide egiteko, bi telefono zenbaki dituzue eskura: 625 701 616 / 653 716 394.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Errolitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ainhoa Azpiroz Eizmendi

San Martin eguneko abestien doinuak entzuten dira egunotan, baina nik oraindik hamaika egun lehenagoko Kalezarko Gau Beltzaren oihartzuna daukat buruan eta gorputzean. Sentsazio ona eta atsegina, sugar beroa.

Ez naiz beldurrezko pelikulen zalea; edo hobeto esanda, beti saihestu izan ditut. Eta lotsarik gabe aitor-tzen dut ez zaizkidala batere gustatzen. Odola, labanak, aurpegi zurbilak eta musika tetrikoa agertzen direnean, beste aldera begiratzen duen horietakoa naiz. Baina Kalezarko Gau Beltzak ez zidan atzerakadarik sortu. Sorpresa asko eta onak ikusi dizkiot.

Hasteko, Gau Beltza ospatuko zela iragartzeak berak ilusioa egin zidan. Antolaketarako jende gutxi zegoela eta agian ez zela ospatuko esate-tik, ospatuko zela iragartzea notizia ona izan zen. Ez dakit zenbat jende ibili den, baina auzotik sortutako dinamika herri guztiko haurrei irekitzea eta halako mimoz eta txukun egitea txalogarria da. Ekimen biziaren sorpresa.

Bigarrenik, Euskal Herri osoan Halloween-en orde-z hemen lehenagotik ospatzen zen Gau Beltza edo Arimen Gaua berreskuratzearekin bat egiten dut. NOAUA!n behin eta berriro irakurri dugu nola jantzita joan behar zen,

Saguxar, saguxar, iluna eraman eta argia ekar



"Kalezarko Gau Beltzaren protagonistetako bat txorimaloa izan zen".

AINHOA AZPIROZ

"Etkez etxe ume taldeak goxoki eske ibiltzea baino egokiagoa da herriko auzo batean antolatutako ekimenean parte hartzea"

burua estalita eta arropa zaharrekin, hemengo usadioari jarraiki. Ez ziren denak horrela jantzita joango, noski, baina mezua garbia zen, eta urtetik urtera Halloween-en aztarnak gutxitzen joan daitezke. Euskal Herriko usadioa berreskuratzeari lotutako sorpresa.

Etkez etxe ume taldeak goxoki eske ibiltzea baino askoz

ere egokiagoa iruditzen zait herriko auzo batean antolatutako ekimenean parte hartzea. Ibilbide baten barruan prestatutako istorio batean murgildu ziren umeak Kalezarren, sorginei eta izaki beldurgarriei aurre eginez. Helburua txorimaloari bidean aurkitutako zintzarria, eguzki-lorea, oilo hanka, kandela eta gaztainak eramatea zen, bidean beldurrei buruz hausnartuz, gaindituz, gaztainak janez, dantza eginez eta abar. Alde ederra dago horrelako ekimen batean parte hartu edo etkez etxe edo dendaz denda goxokiak eta dirua eskatzen aritu. Merkatuaren

arauetatik atera eta beste bi- zipen batzuetan murgiltzeko aukera eman zuen Kalezarko Gau Beltzak. Saria ala ziria baztertuz eta Saguxar, saguxar, iluna eraman eta argia ekar oihukatuz. Beste balio batzuk ikasteko aukera irekitzen dela esan daiteke. Sorpresa hezitzailea.

Eta... Kalezar zein leku egokia den horrelako gauza bat egiteko: kale txikiak, argiak itzalita eta iluntasunean, umeak bakarrik, egoerarako egoki aukeratutako musika... Auzoa moztarrotu eta beltza eta misterioitsu bihurtu zen, armiarma sareen artean xarma berezi eta erakargarriarekin. Sormen sorpresa atsegina eta erakargarria.

Haurrentzako ibilbide bat prestatu zuten, haurrentzat, ez helduentzat. Eta hori ere ederra. Inor behartu gabe - nahi ez zuenak ez zeukan joan beharrik - umeek ibilbideko txokoak pasa zituzten probak eginez, iluntasunean, eta ikuslerik gabe. Gurasorik gabeko espazio seguru bat eskaini zitzaizen eta hori ere behar dute. Agian gurasoak umeak baino gehiago beldurtuko dira, gaur egun dena ikusten, grabatzen eta gainbegiratzen ohituta gauden honetan... Konfiantza lantzeko aukera paregabea. Sorpresa eredugarria.

Bejondeizuela ideia eduki eta gauzatu duzuenoi. Datoren urtera arte!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
parke
lasterketa

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

© 943 362725
© 688 690 361

Trenbidearentzako tunela eraikitze proiektuari alegazioak

Ursbil eta Orio arteko trenbidea hobetu nahian, Eusko Jaurlaritzak tunel bat eraikitze asmoa du Txokoalde inguruan. Proiektuari alegazioak aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da. Herri-tar batzuk kritiko dira egitasmo honekin eta tunela eraikitze egin den ingurumen-inpaktua-zen azterketarekin. Alegazioak aurkezteko kanpaina bat jarri dute martxan.

NOAUA!ra bidali duten oharrean diotenez, Eusko Jaurlaritzaren asmoak Oria itsasadarreko naturgunean “ondorio kaltegarriak” eragingo lituzke. “Alde horretatik, aipagarria da Gipuzkoako Foru Aldundiko Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuaren eta Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza-



Alegazioak aurkezteko kanpaina abiarazi du herritar talde batek. Argazkia: Emiliano Sobrino Fernández.

ren erantzun argia jaso duela proiektuak, baita Irisasiko baso eremuan dakartzan kalte larrien-geatik ere”.

Herritar talde honen iritziz, “badira hain erasokorrak ez diren aukera alternatiboak, egungo trenbidearen optimizazioan oinarriturik”.

Bi argudio hauek zehatzago azaltzen dira alegazioetan. “Hori

dela eta, ingurumenaren hondamenak kezkatzen gaituen guztio-ki eta azpiegitura-lan handien auzian gobernuek egin ohi dituzten gehiegikeriak onartzen ez ditugun pertsona eta talde guztio-ki” deitu nahi dituzte, “gaia aztertzeko eta alegazioekin ados egonez gero, dokumentua izenpetu eta Eusko Jaurlaritzari igortzeko”.

Alegazio-dokumentua euskaraz zein erdaraz topatuko duzue ondoko estekan: alegazioakagina.wordpress.com

Alegazioak aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da. Bi modutara egin daiteke:

- Eusko Jaurlaritzaren ‘Zuzenean’ zerbitzuan erregistratu daiteke (bulegoa Donostiako Andia kalean dago, Alderdi Ederren).

- Gutun ziurtatu baten bidez (postaz). “Kasu honetan alegazioak izenpetu eta honako helbidera bidali behar dira: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Gasteiz. “Posta bulegora alegazio-dokumentuaren bi kopiarekin joatea komeni da, kopia zigilatu bat norberak gordetzeko”.

Ika-mika

Zatoz Arkaitzerrekan gertatzen ari dena bertatik bertara ikustera

2020ko isuriarekin Arkaitzerrekako bizitza ezabatu zuten, hori nahikoa ez, eta isuri kutsakorrek jarraitu dute, 2022ko uztailean bistaratu genuena da horren lekuko. Eta orain zer egin nahi dute? Isuri kutsakorrek egiten jarraitu, isurtzen ari direna ezkutatu, horretarako erreka lehortu behar bada, hori ere lehortuz.

Esan eta esan ari gara, erraustegia abian jartzeak

hiri hondakinen arazoa ez konpontzeaz gain, beste ingurumen arazo kate luze bat eragiten ari da etenik gabe.

Eta oraingoan ere, lehengo lepotik daukala burua erakutsi du GHK-k. 2020an ukatu eta gero onartu egin zuen isuria egon zela, eta oraingoan ere ukatu lehenbizi, eta gero “errekarentzat isuri ez egokia” da goela esan eta, ia 400.000 euro kostatuko den ponpaketa obra bat egitea erabaki du, hodian

barna ezkutuan garraiatu, eta gero itsasoan isurtzeko asmoa dauka.

“Beste mundu bat posible da” zioen gure herrian zabaldu den udalaren leloak. Bai noski, posible da, baina hobeagoa edo txarragoa izan daiteke. Eta horretan, zerikusi zuzena izango du, besteren artean, gure konpromisoak eta konpromiso horiek borrokatzeko gure borondate politikoak. Konpromiso hori irmotzen la-

guntzeko ekimen batean parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu usurbildarroi: datorren azaroaren 12an, larunbata, goizeko 10:30ean ibilaldi gidatu bat abiatuko da Usurbilgo frontoitik, Arkaitzerrekara joan eta han bertan gertakari larri honen berri emango dizuegu. Katiuskak edo mendiko botak eramatea komeni da.

Erraustetaren Aurkako Mugimendua, Usurbilgo Taldea

Ika-mika

Bizitza lanean, orain miserian

Laster bost urte beteko dituen astelehenetako kontzentrazio-manifestaziotan aldarrikatzen den esaldi horrek egoki betetzen du zergatia.

Bizitza guztia lanean jardun eta Europako Karta Sozialak

dioena (Hego Euskal Herrian 100.000 pentsiodun baino gehiago, gehienak emakumeak) jasotzen ez dutelako astelehenero kalean ikusten ditugu. Beren bizitzako azken urteetara iritsi eta euria, haizea, txingorra, eguzkiari aurre egin eta kalean daude.

Hirurogei, hirurogeita hamar, laurogei urtetik gora doazen gizon eta emakumeak dira. Emakume eta gizon horien aurpegiko zimur bakoitza elkartasun keinua dela ikusten dut eta ondorengoentzat berriz ikur zoragarri bat.

Aurpegi horiek duintasuna-

rekin bat egiten dutelako, azaroaren 19an Donostian izango naiz eta elkartasunez betetako zimur horiek irri bihurtuz ondorengoei goazen esanez, elkar ikus gaitezen.

Pentsiodunak aurrera!!!

Orkatz

Ana Galarraga eta Petti: “Frankenstein liburuan oinarrituta dago errezitaldia”

Kulturaldia hastear da eta aurtengo lehen gonbidatuak Ana Galarraga zientzialaria eta Petti musikaria izango dira errezitaldi baten eskutik. Ostiral honetan izango da hori, hilak 11, arratsaldeko 20:00tan hasita, Sutegin. Ana Galarragarekin izan da NOAUA! ‘Frankenstein agurgarria’ errezitaldiari buruzko nondik-norakoak gertuagotik ezagutzeko.

NOAUA! Zientzialaria zarelako ezaguna egin zara azken urteetan, baina orain errezitaldia eskainiko duzu Pettirekin batera. Zer egiten du zientzialari batek errezitatzen?

Ana Galarraga: Errezitaldi honen gaiak badu zientziarekin lotura estua, eta beraz, nire eremuan sentitzen naiz. Bestela ere, zientzia eta letren arteko banaketa hori erabat artifizia eta gezurrezkoa iruditzen zait. Betidanik landu izan ditut bestelako diziplinak ere: literatura, poesia... Literaturia Zarautzen egiten den jaialdia antolatzen urteak egin ditut eta errezitaldietan ere askotan hartu izan dut parte. Hitzaren indarrean sinesten dut, neuri behintzat barru-barruraino iristen zaidalako eta bada adierazpide



Ana Galarragak esan digunez, “Pettiren abestiak gidoiaren parte dira. Badu bereizgarri hori”. Argazkia: Iñigo Ibañez.

ANA GALARRAGA

“Uste dugu Frankenstein dela munstroa, baina ez. Munstroa sortu zuena da Frankenstein. Errezitaldia zientzialariari idatzitako eskutitz bat da”

bat oso baliotsua. Ikuspegiak eta balioak transmititzeko balio du, eta finean, kultura. Kasu honetan, hitzaz gain musika ere badaukagu. Mezuari indarra ematen dio horrek. Ez da beste errezitaldi batzuetan bezala errezitaldia janzteko modu hutsa, kasu honetan abestiak txertatuta daude testu

horretan. Gidoiaren parte dira. Badu bereizgarri hori.

Errezitaldia mutantea izango omen da.

Bai, hala da. Mutantea da aldatu egiten delako batetik bestera. Eskaintzen dugun errezitaldi bakoitza emanaldi bakarra da. Bizitza bera ere horrelaxe da. Munstroaren ideiarekin lotuta dago. Nor da munstroa? Mary Shelleyk idatzitako Frankenstein liburuan oinarrituta dago errezitaldia. Uste dugu Frankenstein dela munstroa, baina ez. Munstroa sortu zuena da Frankenstein. Errezitaldia zientzialari ho-

rri bideratutako eskutitz bat da. Galderak egiten dizkiogu Mary Shellyk jarritako zalantza horiek planteatzen dizkiogu Victor Frankenstein, oraindik ere erabat gaurkotasunezkoak baitira. Zergatik diogu beldur ezberdina den horri? Non daude zientziaren mugak? Jainko izatera jolastea zigorgarria al da? Nork dauka errua zuk sortutako zerbaitek kalte egiten badu? Nork du erantzukizuna? Galdera horiek liburuan planteatuta daude, baina gaur egun ere egin daitezkeen galderak dira. Gerra zibilaren garaia ere jotzen dugu galdera hauek egi-terakoan.

“Kultura arloan lan asko egiten duen herria da Usurbil”

NOAUA!ren Kulturaldian antolatzen diren ekitaldietan ikusi izan zaitugu. Gustuko dituzu Usurbilen antolatzen diren ekitaldiak?

Ana Galarraga: Sutegi aretoaren jarraitzaile sutsua naiz, bai eta Usurbilgo herriarena ere. Kultura arloan lan asko egiten duen herria dela iruditzen zait, eta Sutegi buruan dudak bakoitzean izugarritzko inbidia pasatzen

dut guk Zarautzen ez daukagulako herriari tokatzen zaion neurriko aretorik, eta uste dut hori badaukala Usurbilek.

Beti sentitu izan naiz ongi etorria Usurbilen. Ilusio handia egiten dit NOAUA!ren Kulturaldian parte hartzeak. Booktegiaren jaialdian egin zenean, duela aste batzuk ere bertan izan nintzen egun osoan. Solasaldi bat gidatzeko aukera izan nuen eta aretoan jende asko zegoen,

gainera.

Ilusioz hartu dut errezitaldiarena ikusita jendea Sutegin mugitzen dela eta agian jende dezente hurbilduko dela gu ikustera ere.

Joan zen urtean ere izan nintzen Sutegiko oholztan Elhuyarrek antolatutako jardunaldi batzuetan. Alproja Zarauzko antzerki taldearekin ere izan naiz eta plazer bat izango da itzultzea. Erantzuki-

zun puntu horrekin eta maila emateko irrikitan.

Petti musikariarekin batera arituko zara ostiral honetan Sutegin.

Pandemia garaian sortu zen proiektu bat da hau. Petti-ren disko askotako abestiak biltzen ditu errezitaldiak eta aukera ematen du aspaldiko abestiak egunerokora ekartzeko.

Beatriz Egizabal: “Umorea nire erregistro naturala da”

Beatriz Egizabal izango da NOAUA!k antolatutako Kulturaldiaren hurrengo protagonista. Azaroaren 13an, igandez, arituko da Sutegin oholtzan ‘Magma Mia’ bakarriketa lana plazaratzen. NOAUA!rekin izan da eskainiko duen ikuskizunaren nondik norakoen berri emateko.

NOAUA! Igandean ‘Magma mia’ bakarriketa eskainiko duzu Sutegin. Zeri buruzko lana da honakoa?

Beatriz Egizabal: Zuloak ixteko hezi gaituzte eta arazo asko zuloa tapatuta ez dira konponetzen. Sumendi hori lehertzeardago eta hori da gaia. Patriarkatuak egunerokotasuna nola baldintzatzen digun aztertuko dut. Egunerokotasuneko aspektu txiki askotan eragiten digu eta gure izaera ere horri oso lotuta daude. Hau kontatzeko pasarte eta istorio umoretsuetan oinarrituko naiz, umoretik eginiko kontaketa baita.

Non du jatorria lan honek?

Kuadernotxo bat daukat ideiak jartzeko erabiltzen dudana. Zerrenda horretan mila gauza dauzkat idatzita, baina gero denek ez dute forma hartzen ez daukadalako denborarik edota ez delako haien momentua. Feministaldiak bakarriketa bat eskatu zidan aurreko ediziorako espresuki feministaldi horretarako sortua. Zerrenda horretatik orduerdixoko bakarriketa bat osatzeko gai izan nintzen. Izen bat ere behar zuen lanak eta garai hartan Kanarietako Las Palmako sumendiaren gaia puri-purian zegoen eta hortik magmaren ideia ateratu zen eta ‘Magma mia’ izenarekin amaitu zuen. Dena erabat lotuta dago, karateleko sumendiarekin, sutan egote horrekin, lehertzeardago tearekin... Feministaldirako



Egizabalen bakarriketak ordubeteko iraupena du. Argazkia: César Marcos.

BEATRIZ EGIZABAL

“Patriarkatuak egunerokotasuna nola baldintzatzen digun aztertuko dut”

egindako lan horrek jarraipena behar zuela ikusi nuen eta lehen hazi horretatik tiraka Sutegin eskainiko dudana sortu zen, ordubete ingurukoa.

Umorea izan duzu lan tresna hainbatetan, bai eta feminis-

moaren bidea jarraitu ere. ‘Magma mia’ bakarriketak ere bide horiek jarraitzen al ditu?

Umorea nire erregistro naturala da, clown edo pailazo formakuntza jaso baitut. Izaeraz ere badaukat umore puntu hori bizirauteko tresna gisa. Oso eroso nago umorean eta nire erregistro naturala da, erabat. Feminismoa ez dut inoiz zuzenean gaitzat hartzen, hau da, gai bat lantzen dut, baina beti ikuspuntu feministatik. “Antzerki feminista egin du”,

esaten dute, eta hala da, baina ikuspegi bat baino ez da. Justu lan honetan patriarkatuari buruz hitz egingo dut, baina tartean badaude bestelako pasadizoak ere eta horiei ematen diet ikuspuntu feminista zuzenean gaitzat hartu beharrean. Umorea erregistro dut eta feminismoa zeharlerroa da. ‘Erradikalak ginen’ lanean ere gai asko lantzen genituen: euskalgintza, indarkeria... Gaiak ez dira bereziki feministak, baina gai horien azterketa feminista zen.

‘Erradikalak ginen’ lana eskaini zenuen 2021ean Sutegin Ane Labakarekin batera. Harrera oso ederra izan zuen lan hark. ‘Magma mia’-k nolakoa izan du beste herrietan?

Oso pozik nago, oso ondo hartu dute. Herri txikietan egin dut bakarriketa hau eta estreinakoa Lasarten egin nuen, nire herrian. Bakoitzak bere herrian egitea izaten da zailena, baina oso ondo ateratu zen. Testua jada oso barneratuta daukat eta gozatzen ari naiz ekitaldi bakoitzean.

NOAUA! Kulturaldia hastera doa

Azaroak 11 ostirala

“Frankenstein agurgarria” errezitaldia, Petti eta Ana Gallarragarekin.

■ Sutegin, 20:00etan.

■ Sarrerak: 10 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman. 8 eurotan NOAUA! K.E.-ko bazkideek, aurretik eta NOAUA!-ren egoitzan soilik.

Azaroak 13 igandea

“Magma Mia” bakarriketa saioa, Bea Egizabalekin.

■ Sutegin, 18:00etan.

■ Sarrerak: aurrez 8 eurotan salgai usurbilkultura.eus plataforman. 6 eurotan NOAUA! K.E.-ko bazkideek, aurretik eta NOAUA!-ren egoitzan soilik.

Azaroak 18 ostirala

“Black is Beltza II: Ainhua” film proiektzioa.

■ Sutegin, 22:00etan.

■ Sarrerak: aurrez salgai 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. 8 eurotan NOAUA! K.E.-ko bazkideek, aurretik eta NOAUA!-ren egoitzan soilik.

Azaroak 19 larunbata

“Zeozertan dabil baina ez dakit zertan” antzezlan, Metrokoadroka kolektiboaren eskutik.

■ Sutegin, 20:00etan.

■ Sarrerak: aurrez salgai 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. 8 eurotan NOAUA! K.E.-ko bazkideek, aurretik eta NOAUA!-ren egoitzan soilik.

Antolatzailea: NOAUA! K. E. Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Zurriolako hondartza ingurua dioxina eta metal astunez kutsatzeko nahia salatu du GuraSOsek

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak (GHK) Zubietako erraustegiko lurpeko uretan aurkitutako dioxinak eta metal astunak Donostiako Zurriolako hondartzara birbideratu nahi dituela salatu du GuraSOsek. Ura Agentziari Arkaitzerrekan ponpaketa-sistema bat eraikitzeke baimena eskatu dio GHK-k. “GHK Partzuergoak Añarbeko hodi biltzailera ura ponpatu eta isurtzeko baimena eskatu dio Uraren Euskal Agentziari (URA), Monpaseko hustubidetik irtengo litzatekeelarik, Zurriolako hondartzaren inguruan, dioxina eta beste osagai kutsakorren arazketarik gabe, zeren eta Loiolako Hondakin Uren Araztegia (HUA) ezarritako sistema ez da egokia helburu horretarako”.

Albiste honen aurrean, begi bistako ondoriora heldu da GuraSOS. Iragan uztailean Arkai-



GHK Partzuergoak Añarbeko hodi biltzailera ura ponpatu eta isurtzeko baimena eskatu dio Uraren Euskal Agentziari.

GURASOS

“Partzuergoak orain onartu du ur hauetan kutsadura arazoa dagoela”

tzerreka gorritsu eta apartsu agertu ostetik “lau hilabetez behin eta berriz ezeztatu ostean, Partzuergoak orain onartu du ur hauetan kutsadura arazoa dagoela”.

Gogoan izan, GuraSOsek gogorarazi duenez, GHK-k gezurtatu egin zuen uztailaren 14an Arkaitzerreka gorritsu eta apartsu agertu ostean GuraSOsek salaturikoa. “Lixibiatu eta instalakuntzako prozesuetatik sortutako filtrazio baten aurrean egon gintezkeela”, salatu zuen GuraSOsek orduan. GHK-k “asmo txarreko manipulaziotzat” jo zituen

adierazpenok.

Ponpaketa-sistema

GHK-k URA-ri eginiko baimen-eskera 23 egunez jendarean egongo da urriaren 29tik zenbatzen hasita. “Obra horiek kalteak eragiten dizkietela irizten dutenek” erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

GuraSOsek URA agentziaren txostenaren bidez jaso ahal izan dituen datuen arabera, “lanek bi hilabeteko iraupena eta 369.087,50 euroko aurrekontua izango dutela zehazten da”. Egin beharreko lanak aldiz honako hauek dira. “GHK-k ponpaketa sistema bat eraiki nahi du, Zubietako auzoan Arkaitz errekastora isurtzen duen cmg1 plataformako ibarbidearen ondoko drain-hodiaren irteerara”. Hau dena, “putzutik hasi eta erraustegiko instalazioetara sartzeko tunelaren ondoan dagoen saneamendu-sarearekin konektatzeko”.

Azaroaren 27an manifestazioa Donostian, GuraSOsek deituta

Baimen eskaera biltzen duen txostenak aitortzen du “gaur egungo isurketa ez dela ibaiarentzat egokia”. Zergatiak ez ditu zehazten baina GuraSOsen esanetan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailburuordetzaren esku dauden “GHK-k berak eskatutako txosten publikoek frogatzen dute azken bi urteetan dioxinak eta furanoak aurkitu direla lurrazpiko ur horietan, “onartutako kutsakortasun maila gogorreko balioak baino 62 aldiz altuagoak”. Hori gutxi ez eta, “metal pisutsuak, amonioa, kloruroak, fenolak eta TPH (hidrokarburoak) ere aurkitu dira. Hauek denak ohikoak direlarik hondakinen errekuntzan, oroko-

rrean eta zehazki plastikoetan. Lindanoa ere agertu da zenbait laginetan”.

GuraSOsek ohartarazi duenez, “Loiolako HUA ez dago hornitua erraustegiak isurtzen dituen elementu kutsakorrek desaktibatzeko beharko lituzkeen prozedura teknikoekin. Araztegia hornitua dagoen hiru ekipamenduek, hala nola, “aurre-tratamenduak”, hau arduratzen delarik lodi eta finen arbasketa, dreinaketa eta koiepegabetzeaz, edota uretan disolbatutako materia organikoa ezabatzekeo tratamendu biologikoa eta dekantazioak ez dute posible egiten erraustegiko isurketako osagarri kutsakor horiek araztea”.

Baimen bakarra

GHK-k gauzatu nahi duen egitasmo hau bideratzeko, hau da, erraustegiak Añarberen saneamendu-sarera isurtzeko behin-behineko baimen bakarra du GuraSOsen esanetan, “2019ko apirilaren 29an aipatutako erakundeko Kalitate Kontrol Saileko arduradunak emana”. Baina halere baimen horretatik kanpo geratzen da “ingurugiroan edo arazketaren prozesuan bideragarritasun edo errendimenduan arriskuzko edo aparteko intzidentzia eduki dezaketen hondakin-urak”. Horrez gain, “espresuki aipatzen dira gainera, debekatutako substantziak: kloruroak, kobrea, zinka eta fenolak. Osagai hauek ziren, zehazki Usurbilgo Udalak uz-

tailean Arkaitzerrekako ubidean eskatutako analisietan ateratzen direnak”. Gainerakoan, GHK-k bideratu nahi duen proiekturako (eta URA-ri egin dion baimen eskaeraz gain) ez du bestelako baimenik. “Ez Ingurumen Baimen Bateratuak, ez Ingurumen Inpaktu Adierazpenak ez eta Añarberko uren hodi-biltzailak ez dute aurreikusten halako ezaugarriak dituen isurketarik”.

Mobilizazioa

Gertatzen ari dena salatzekeo mobilizazio handi bat prestatzen ari da GuraSOS. Adi, azaroaren 27an izango da eguerdiko 12:00etan Donostian. Asteotan emango dute xehetasun gehiagoren berri.

ETXEKOA, BERTAKOA

HERRIKOEN ZERBITZUA
BAINA HOBERIK BA AL DAGO?



Atetik sartzen
den bezero
bakoitzak
ematen die
bizia herriko
merkatariei.
Zuek ematen
dion biziak!



hurbilag

USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA



gertuago.eus

Ikus gertuagorain-ari dauden **HURBILAGOKO**
derisak, berriak eta promisiak.

Gau Beltza izaki beldurgarrien topagune izan zen

Euskal tradizioaren baitan ahaztuta zegoen ohitura atzera ekarri zuten Kalezarren, urteko gauek beldurgarrienean, urriaren 31n. Hezur-lapur, sorginak eta denetarik izaki beldurgarriek bat egin zuten Gau Beltzaren aitzakian osatutako ibilbidean.

Dozenaka gaztetxo hurbildu ziren Eskribaenea parera eta talde txikitik, ibilbide bat jarraitu zuten plazako txorimalora iritsi arte. Azkenik, txorimaloari eguzkilorearekin profezia bota zioten argia askatu eta izaki beldurgarriek alde egin zezaute. Hurrengo egunetan, ez zen izaki beldurgarri berririk agertu Kalezar inguruetan, beraz, haur eta gaztetxoek lortu zuten haiek uxatzea.



Urriaren 31n Gau Beltza ospatu zuten Kalezarren.



Dozenaka gaztetxo hurbildu ziren Eskribaenea parera eta talde txikitik, ibilbide bat jarraitu zuten plazako txorimaloraino iritsi arte.

Frontoia eta Dema plaza artisauen bilgune bilakatu ziren

Bitxiak, ogiak eta gozogintza, arropa, jolasak, egur lanak... Eta hala hamarnaka ogibide plazaratu zituen azaroaren 1eko ohi baino 26. Artisanu Azoka handiagoak. Aurtengoan, frontoitik Dema plazara luzatu baitu Aitzaga Elkarteak. Eta aldaketa-ekin bete-betean asmatu zuen antolakuntzak.

Aurtengoan, aipatzekoa herrikideen parte hartzea, talogile zein gaztaingileena, Udarregi Ikastolako artisauena edota besteak beste, Zorione Mendez, Jurgi Fuentes eta Inma Arroyo herriko artisauena.



Azaroaren 1eko Artisanu Azokak bisitari ugari erakarri zituen.



Gaztain erretzaileak, talogileak eta gozogileak Artisanu Azokan izan ziren postu banarekin.

Sorterrien mundu bat

Mongolia, Pakistan, Nigeria, Italia, Alemania, Nikaragua, Venezuela, Sahara, Mauritania, Galiza edota Kuba. Herrialde guztietako eta gehiagotako ordezkariak ditugu Usurbilen. Eta zuten onena eskaini zigiten, esker onez azaroaren 5ean frontoian ospatu zen Mundualdian. Jatekoa, baita musika ere. Nikaraguako bi herrikideek, Alvaro Teranek eta Saul Narvaezek euren sorterriko hainbat abesti ekarri zituzten. Eta segidan, frontoira joandakoak dantza batean jarri zituen Kawadeni taldeak, Afrikako perkusio doinuekin.



Azaroaren 5ean Aniztasun Kontseilua aurkeztu zuten.

Ohiko formatuan itzuli den Mundualdia, jatorri ezberdinetako herrikideen topagunean

bilakatu da beste behin. Mundualdiaren bueltan oraindik bada ate joka dugun beste hi-

tzordu bat. Azaroaren 10ean, 18:00etan Potxoenean, Mario Zapataren hitzaldia harrera protokoloen inguruan.

Aniztasun Kontseilua zabalik

Aniztasun Kontseilua aurkezteko baliatu zuten larunbateko Mundualdia jaialdia. Ekimen honek bizikidetzarako, sorterri guztietako herritarren hartuemanak sendotzeko balio duen moduan, bide horretan sakontzeko bilgunean parte hartzeko gonbita luzatu zuten. Besteak beste Usurbil harrera herri bilakatzeko lanketa bidea jorratzen segiko dute aurrerantzean.



Ohiko formatura itzuli zen Mundualdia. Jatorri ezberdinetako herrikideen topagunean bilakatu da beste behin ere. Irudi gehiago noaia.eus web orrialdean.

Mundualdian, Zirimararekin jolasean



Mundualdiaren egunean, gaztetxoek elkarrekin jolasean aritzeko aukera berri bat izan zuten. Zirimarako lagunek gidatu zuten ekimena.



Ofizioen Gida



PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

• ERAIKUNTZAK • OBRAK
• BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392
e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

• gremioen koordinaketa
• berritze lanak
• sukaldeak
• komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

• FATXADAK ETA TEILATUAK
• ERAIKUNTZAK • BARRUKO BERRIKUNTZAK
• URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROTZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZTEGIA

943 362 664
Barren Elxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arotzgi.net | jr.ibargoen@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 - 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.8 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

• ITURGIN LAN OROKORRAK • DUTXAKO HANPARAK
• KOHINDATZAZKO OREHIOAK • KOHUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04



XNORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak
• beira bikoitza • segurtasun beirak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

• TRESNERIA ETA ERREMINTAK
• EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Ziortzaren 37 urteko ibilbidea, argazki erakusketa batean jasoa

Azaroaren 11tik 19ra erakusketa bat jarriko dute Ziortza Gazte Elkarteko lagunek Sutegiko erakusketa aretoan. Ziortza Gazte Elkarateak antolatzen dituen ekintzetan ateratako argazkiekin osatutako erakusketa izango da, duela 37 urtetik hasi eta gaur egungoetara arte.

Ziortza Gazte Elkarateak 37 urteotan antolatu dituen ekintzetan herritar ugari izan dira. Horiei guztiei eskainitako argazki erakusketa izango da euren partehartzea eskertzeko modua.

Bisita egunak

Ziortzaren astialdi ibilbidea argazkitan ikusi ahal izateko ordutegia hauxe izango da:

Azaroak 11, ostirala:

■ 17:00-20:00.

■ Sutegiko erakusketa aretoan.

Azaroak 12, larunbata:

■ 12:00-14:00.

■ Sutegiko erakusketa aretoan.

Azaroak 18, ostirala:

■ 17:00-20:00.

■ Sutegiko erakusketa aretoan.

Azaroak 19, larunbata:

■ 12:00-14:00.

■ Sutegiko erakusketa aretoan.



Ostiral honetan zabalduko dute erakusketa Sutegin.

Tailerrak Santuenean

Azaroak 18 ostirala, kosmetika tailerra

Kosmetika naturala egiten ikasi nahi duenarentzat ikastaro egokia. Azaroaren 18an ostirala, Santuenea elkartean, arratsaldeko 17:30ean. Sarrera: 10 euro. Elkarteko kideentzat 7 euro baino ez.

Azaroaren 18an eta 25ean, Gabonetako gozogintza tailerra

Bi ostiraletan jarraian, arratsaldeko 17:30ean, Santuenea elkartean.

Sarrera: 10 euro. Elkarteko kideentzat 7 euro baino ez. 2 euro adingabeentzat.

Azaroaren 27an, ibilaldia Santueneko inguruetan barrena

Santuenea eta inguruko bazterrak ezagutzeko ibilaldia. San Estebandik gorako norantzan egingo dute ibilaldia, baina abiatu ludotekatik abiatuko dira goizeko 10:30ean. Arratsaldean haurrentzako pelikula bat jarriko dute elkarteko egoitzan. Sarrera doan.

Xehetasun gehiagorako

Ekitaldi hauen inguruko informazio gehiago jasotzeko honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 670 027 731.

"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaraldian bost argune sortuko ditugu".

Nerea Ortiz

HITZEZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!
euskaraldia.eus





2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra

Puntu beltzak identifikatzen laguntzeko deia

Kafe Tertuliako kideek Usurbilgo Puntu Beltzak identifikatzeko proiektua abiarazi dute. Taldeak berak identifikazio lan bat egin zuen urriaren 29an antolatutako Egun Morean. Lanketa hau herrira zabaltzeko nahi dute orain. “Guk burututako identifikazioaz gain, Usurbilgo emakume* guztien parte hartzea bultzatu nahiko genuke, ahalik eta Puntu Beltz gehien identifikatu ahal izateko”, berri eman dute Kafe Tertuliatik. Albiste honi atxikia duzun QR kodearen atzean dagoen galdetegia osatzeko gonbita luzatzen dute.

“Bertan, zure esperientziatik abiatuta, burura etortzen zaizkizun Puntu Beltzak zerrendatzea eskatuko zaizu, hauek honela izendatzeko arrazoiak zein den ere aipatu beharko



QR kodearen atzean dagoen online galdetegia osatzeko deia luzatu dute.

KAFE TERTULIA

“Zure esperientziatik abiatuta, burura etortzen zaizkizun Puntu Beltzak zerrendatzea eskatuko zaizu”

duzularik”. Identifikazio lanak amaituta, “Kafe Tertuliako ki-

deok Puntu Beltz bakoitzaren arrazoiak mahai gainean jarri eta hauei erantzuna ematen saiatuko gara”.

“Eta zu, seguru sentitzen al zara Usurbilgo kale guztietan?”

Puntu Beltzak zer diren argi-ago azaldu nahi izan dute Kafe Tertuliatik NOAUA!ra helara-

zi duten idatzian. “Argitasun ezagatik, kalearen luzeragatik, irtenbiderik ez dagoelako edo bestelako arrazoiengatik, Puntu Beltz bezala izendatu ditugu zaurgarriago sentiarazten gaituzten lekuak. Emakumeen aurkako indarkeria egoerak sortzeko arriskua handiagoa den kale eta txokoak hain zuzen ere”. Eta Usurbilen egon badaude baita. “Sarritan sentitu izan gara beldurrez Usurbilgo neska* gazteok herriko txoko ezberdinetan. Honen aurrean, Puntu Beltzen proiektua jarriko dugu abian Kafe Tertuliako kideok”. Hortik planteatzen duten honako galdera. “Eta zu, seguru sentitzen al zara Usurbilgo kale guztietan?”. Erantzuteko garaia orain. “Zure laguntza behar dugu proiektu honi hasiera emateko! Galdetegia bete ezazu Puntu Beltzen identifikazioan laguntzeko!”.

Eskatu ticketa
hazten jarraitzeko. **BAI.**



Eskatu TicketBAI, etorkizuneko erronkei aurrea hartuko dien Gipuzkoa bat eraikitzeko.
gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN I EN GIPUZKOA

Elkartasuna
Pasa Aldekoa
Diputazioa
Departamentuak



ETORKIZUNA
ORAIN
En el futuro



Omenduak, 80 urte betetzeagatik

80 urte bete dituzten herritarrak dira argazkiotan ageri direnak. Urriaren 23an omenduzituzten. Aginaga sagardotegian eginiko bazkarian oroigarri bana jaso zuten, Agurtzane Solaberrieta alkatearen eskutik. Irudiak: Gure Pakea.



Antonio Guevara Garcia.



Francisco Sillero Gutierrez.



Flora Martin Sanchez.



Isabel Navajas.



Jose Antonio Errazkin Balerdi.



Santiago Del Campo Gomez.



Jose Luis Muguruza.



Eulogio Castro Miguel.



Diego Abreu Lopez.



Francisco Gonzalez Marin.



Manuel Redruello Fernandez.



Juan Martin Bautista.



Benigno Rojo Rojo.



Vicenta Manterola Begiristain.

Herri babesa eta elkartasuna Maria Angelesi



Azaroaren 1ean elkarretaratze jendetsua egin zuten Dema plazan.

Etxekaleratzeen aurrean herri elkartasuna. Putre-funtsik ez! aldarri-pean, elkarretaratze jendetsua egin zuten Dema plazan azaroaren lehen eguneko Artisau Azokan, 80 urteko Maria Angeles herrikideari babesa eta elkartasuna agertzeko.

Une honetan bere egoera impasse egoeran dela azaldu zuten. “Etxebizitza enkantean prozesua atzeratzen edo gelditzen saiatzen ari dira”. Bide horretan, “mailegu emaileri ordaintzeke dagoen diru kopurua

HERRI EKIMENA

“Maria Angelesek bere etxean bizitzen jarrai dezan, ahal dugun guztia egingo dugu herri mobilizaziotik”

zehazteko eskatu diote, zorra deusezteko aukera eskatuz. Hau da, zorra ordaintzea”. Horretan da egoera egun.

Horregatik, aipatu herri bilgunetik datozen deialdi eta mobilizazioei adi egotea eskatu zuten. “Maria Angelesek bere etxean bizitzen jarrai dezan,

ahal dugun guztia egingo dugu herri mobilizaziotik. Maria Angeles bere etxean geratuko da. Etxebizitza eskubidea da, etxe kaleratzeen aurrean beti herri elkartasuna!”.

Zozketa

Maria Angeles laguntzeko Artzabal jatetxeak antolaturiko zozketako zenbaki sarituak (asteburuko menua eta sagardo eta ardo lote eder bat) honako hauek izan dira: 3.444 eta 4.021. Bildutakoa etxegabetze arriskuan den Maria Angelesen herrikidearentzat izango da.



Miriam Arrillaga Beloki, munduko txapeldunordea

Urriaren 22tik 29ra Biarritz, Baiona, Hasparren eta Bidarteko frontoietan jokaturiko Munduko Pilota Txapelketan txapeldunorde amaitu du Miriam Arrillaga Belokik. Zilarrezko domina irabazi du frontball modalitatean. “Etaparen amaiera gazi-gozoa” izan dela adierazi du sare sozialen bidez, senideekin batera argitaratu duen ondoko argazkiarekin batera.

“Urrearen bila joan garen arren, zilarrezko domina lepoan dugula bueltatu gara!”, gaineratu du. Esker ona adierazi nahi izan die etxekoei. “Urrea balio dutenak alboan ditut: eskerrik asko familia, lagunak eta inguruko guztiei txikitako amets hau egi bihurtzen laguntzeagatik! Pilota munduaz elkarrekin gehiago gozatzen jarrai dezagun!”.

Gogoan izan, iaz Europako txapeldun izan zela Arrillaga modalitate berean, Toulousen (Frantzia) ospaturiko frontball txapelketan.

Antzezlanaren Sutegin



‘Cervantesen intermesak’ antzezlanaren oholtzara ekarri zuten ostiralean Zuentzat elkartearen Donostia boluntarioen antzerki taldeak. Jubilatuek osatutako antzerki taldea Sutegira ekartzeaz Gure Pakea elkartearen arduratu zen. Zahartzarora oinarri hartuta, dibortzio eta jelsorkeriaren gaia landu zituzten umoretik.

Pottokak Santuenean



Santuenean haurrek aukera ederra izan zuten igande goizean pottoken gainean ibiltzeaz gain, haiekin jokoak egin ahal izateko: pilota saskiratu, uztaiak sartu, papera zintzilikatu... Goiz pasa ezin hobe egin zuten Santueneko eskubaloiz plazara hurbildutako dozenaka umek.

Amaitzear duten Txirikordan sartzeko urrats berri bat

Urrats berri bat Ugartondoko urbanizazio berrian kokatuko den Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa irekitzeko bidean. Baremazio eta esleipen prozedura erregelamendua onartu zuen udalbatzak aho batez, urria amaierako osoko bilkuran. Alegazioetarako 30 eguneko epea zabalik da azaroaren 8az geroztik.

Paraleloki bi prozesuren erdigunean dago Txirikorda. Prozesu urbanistikoari dagokionez, eraikitze lanak azken txanpan daudela ikusi ahaliko duzue. Udal gobernu taldeak aurreikusia duenez, urte amaierarako eraikina bertan bizitzeko moduan egon liteke. 2023ko udal aurrekontuetan etxebizitzak barrutik ekipatzeko diru partida jaso asmo dute.

Prozesu soziala ere martxan da. Eta bertan kokatua dago urria amaieran udalbatzak hartutako erabakia, lerrootan



Udal gobernuak aurreikusi duenez, urte amaierarako bukatuko dira eraikitze-lanak.

TXIRIKORDA

“2023an esleituko dira Txirikordako etxebizitzak”

aipagai duguna. Aurrerago, 2023an esleituko dira etxebizitzak. Bizilagun berriei kontratua sinatzea eta giltzak ematea aldiz, Txirikordaren barne funtzionamendua arautuko duen udal ordenantza onartu

ostean izango da. Bertan biziko den taldea elkar ezagutu eta kohesionatu eta gero.

Interesa pizten

Aurre izen-emate bat bideratu du Udalak online bidezko galdetegi batekin udazken hasiera honetan. 40 lagunek bete dute, udal gobernu taldearen esanetan; %80a 18-30 urte artekoak izan dira, gainerako %20a 65 urtetik gorakoak.

Txirikorda eta zaintzadun etxebizitzak ezagutzeko aukera Azaroak 17, osteguna

■ 18:00 “Zaintza lanen demokratizaziorantz: etxeko lan-gileak borrokan” hitzaldia.

■ Hizlariak: Matxalen Legarreta (EHUko irakaslea), Txefi Roco (LABeko ordezkaria) eta Maitelan kooperatiba.

Azaroak 19, larunbata

Zaintza Azoka:

■ 10:00-10:30 Harrera guinea.

■ 10:30-11:30 Harrera hitzaldia: “Zer da Usurbilgo Ekosistema berria?”.

■ 11:30-13:00 Bizipen tailerak, Usurbilgo prozesuan parte hartu duten lau lan-taldeekin: komunitatea, zerbitzuak, pertsona erabiltzaileak eta Gizarte Zerbitzuak.

■ 13:00-13:30 Txirikorda eta zaintzadun etxebizitzetara bisita gidatuak.

■ 13:30-15:00 Bea Egizabalekin itxiera eta luntxa Artzabalen.

Txirikordaren ezaugarriak

■ Nori zuzendua: etxejabeak ez diren 18-30 urte arteko gazteei eta 65 urtetik gorako helduei.

■ Helburuak: gazteen emantzipazio beharrei eta adinekoen bakardade edota etxebizitzako irisgarritasun arazoei aurre egitea.

■ Kokagunea: Ugartondo, Ugarte baserriaren ondoan.

■ Etxebizitza kopurua: 16. Kolektibo bakoitzarentzat zortzina etxe. “Kolektiboren batean ordezkariak ez balego, 2-3 etxebizitza erreserban utziko lirateke. Itxaron zerrenda osatuko da etorkizuneko bajak betetzeko”.

■ Etxebizitzaren ezaugarriak: -Logela bakarreko 10 etxebi-

zitarra eta biko beste sei.

-Eraikinak bizileku pribatuak eta espazio komunak izango ditu.

■ Elkarbizitza:

-Espazio autogestionatua izango da: bakoitzak bere etxe pribatua izango du, baina aldi berean, espazio komunak partekatuko ditu gainerako bizilagunekin.

-Komunitateak ezarriko ditu espazio partekatutako zeintzuk diren, baita “garbiketa txandak, erabilpenak eta ordutegiak”.

-Norbanakoen eta kolektiboaren kontsumoak bereizi egingo dira. Erosketak, harpidetzak zein ondasun kolektiboaren kontsumo adostuak sus-

tatuko dira.

■ Esleipena:

-2 urte baino gehiagorako Usurbilen erroldatua egotea (Donostiako lurretan bizi diren zubietarrek ere parte hartu ahaliko dute).

-Eskaera norbanako moduan edo bizi nahi duten pertsonekin batera bideratu ahaliko da, “betiere guztiek baldintzak betetzen badituzte”. Logela bat edo bi behar diren zehaztu behar harko da.

-Eskatzailerek Udalak eskainitako formakuntza eta prestaketan parte hartu behar dute.

-Gazteen kasuan: zozketa bidez esleituko dira etxebizitzak gehienez 5 urterako.

-Helduen kasuan: gizarte zerbitzuek eskatzaileen beharrik neurtzeko baremazioa egingo dute. 5 urtekoa izango da etxebizitzaren esleipena, baina luzagarria, “etxea esleitu uneko egoerak bere horretan jarraitzen badu”.

-Errenta diru-sarrera guztien %15 izango da, hilero 90 euroko gutxienekoa ezarrita.

-Etxea jabetzen duten helduen kasuan, “kontratua sinatzen denetik urte bateko epean, etxebizitza hori hutsik ez dagoen konpromisoa hartuko dute”.

■ Informazio gehiagorako: usurbil.eus/txirikorda 943 371 951.

■ Iturria: Usurbilgo Udala.

Hasieraz onarturiko HAPO-a jendaurrean aurkeztera doa Udala

Udalak, eragileek, herrikideek 2014. urteaz geroztik lankidetzan marraztu etorkizuneko Usurbilen nondik norakoak biltzen dituen plana prest da. Hasieraz onartu zuten urriaren 13ko udalbatzarrean Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO). Datorren urtarrilaren 31ra arte jendaurrean izango da ikusgai orain; alegazioak egiteko aukera egongo da. Bizpahiru urte barru indarrean jarri asmo dute.

Epe hau baliatu nahi du Udalak plangintza bera herriratzeko. Egunotan etxez etxe banatu du Usurbilgo etorkizunerako planaren nondik norakoak biltzen dituen aldizkaria. Aurrez aurre ere aurkeztu nahi du baita, asteotan antolatu dituen saio eta erakusketen bidez.

“Erronka globalei tokiko erantzun komunitario propioak eraiki eta ikuspegi sistemikoz eman nahian, instituzio publikoaren eta herri eragileen lidergo konpartituaren pean, eraldaketa prozesuak behar duen gobernantza eredu kolaboratiboa jorratuz” hortxe kokatzen du Udalak HAPO berria, 2004-13 urte arteko Arau Subsidiarioak ordezkatzera datorrena. Datozen 15 urteetarako “herri proiektua” zehaztuko duena, herriaren aurrera begirako antolamendua definituko baitu.

“HAPO-ak tresna edo bitarteko bat izan nahi du denon artean eraikitako eta denontzako



Datorren urtarrilaren 31ra arte jendaurrean izango da ikusgai.

UDALA

“HAPO-ak bitarteko bat izan nahi du denon artean eraikitako eta denontzako izango den Usurbil jasangarriagoa, inklusiboagoa, onuragarriagoa eta bizigarriagoa bihurtzeko”

izango den Usurbil jasangarriagoa, inklusiboagoa, onuragarriagoa, eta bizigarriagoa bihurtzeko, euskara garapen komunitarioaren ardatz izango duena, inor baztertu edo atzean utziko ez duena, herrikideak zainduko dituen, eta usurbildarren arteko berdintasuna eta justizia soziala izango duena aspirazio gisa”, udal gobernu taldetik HAPO-a hasieraz onartu zuten udalbatzarrean adierazi zuten. Gaineratu zuten, horregatik hain zuzen “egungo hiri-eredua zalantzan jartzen du esku artean dugun HAPOak, eta hirigintza eko-feministaren irizpideak eta begiradak geure eginez, gertutasu-

nean eta ingurumenaren eta herritarren zaintzan oinarrituriko herri eredu sakontzen du”.

Parte-hartzea ardatz

Lanketa prozesu luze baten emaitza da planeamendua bera. Hemen HAPO-a lantzeko bideratu diren hainbat parte-hartze prozesu:

- 2014-15: “Oraina da geroa” parte hartze prozesua HAPO-aren idazketa abiatzeko.
- 2016: “Usurbil Kale Irekiak” parte hartze prozesua. Espazio publikoaren eta mugikortasun iraunkorraren plana idatzi zen.
- 2017-2018: Aginagako herri-gunea antolatzeko proposamena egiteko parte-hartze prozesua bertakoekin.
- 2020: “Guk Zubietan zer?” parte-hartze prozesua HAPOaren inguruko hausnarketa bideratu eta bertako errealitate eta beharrak identifikatzeko, Herri Batzarrak eta Usurbil zein Donostiako Udalek lankidetzan sustatua.
- 2021: HAPO-aren proposa-

menen aurkezpena Kalezarren bertako bizilagunekin.

■ 2021-22: Auzoa integralki lantzen duen ‘Santuenena Elkarlanean’ parte-hartze prozesua jorratu eta hortik plana osatu dute. Auzotarren talde eragile batek gidatu du prozesua, kanpo aholkularitza tekniko baten laguntzaz.

Aurkezpeneak eta erakusketak

Aurkezpeneak

Azaroak 15, asteartea

■ 18:00 Potxoenean.

Azaroak 23, asteazkena

■ 18:00 Aginagako Eliza Zaharrean.

Azaroak 30, asteazkena

■ 18:00 Zubietako Kaxkapen.

Erakusketak

■ Azaroak 20-22/Abenduak 7-31: Sutegi.

■ Azaroak 23-29: Aginagako Eliza Zaharra.

■ Azaroak 30-abenduak 6: Zubietako Kaxkape.

Arkitektoarekin hitzorduak

Azaroan eta urtarrilean

■ Astelehen arratsaldeak: 17:00-19:00.

■ Astearte goizak: 9:00-13:00.

■ Hitzordua aurrez eskatzeko: 943 371 951.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

ARTZABAL

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com




943 36 91 39



Kima

MASAJE LEKUA



·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Saskiak, elkartasun iturri



Errigorako saskiak errigora.eus web orrialdean eskatu daitezke.

Errigora, Nafarroako euskalgintzaren alde

Saskietatik lortutako diruaren %25a Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko euskalgintza laguntzeko erabiliko da.

Hiru saski aukeran

- Saski beltza (55 euro).
- Saski berdea (65 euro).
- Saski zuria (75 euro).

Nola egin daiteke eskaera?

Eskaerak errigora.eus webgunean egin daitezke. Hortik eginez gero, nahi izatera, NOAUA!n jaso ahal izango duzue saskia. NOAUA!ko bulegora etorri bestela, eta NOAUA!tik bideratuko zaizue eskaera.

Eskatutakoa jasotzeko eguna eta ordutegia aurrerago jakinaraziko dira.



Zuberoako saskiak ikaskoli.eus web orrialdean eskatu daitezke.

Zuberoako ikastolen aldeko ekimena

Zuberoako bi ikastolen aldeko saskiak. Errigorakoekin egin bezalaxe, hauek ere tokiko produktuekin osatutako saskiak jarri dituzte salgai.

- Pettarra, 51 euro.
- Arbaila, 57 euro.
- Basabürüa, 68 euro.

Nola egin daiteke eskaera?

Kanpaina azaroaren lehenean abiatu zen eta azaroaren 27an amaituko da eskaerak egiteko epea. Saskiak ikaskoli.eus web orrialdean erosi daitezke.

Eta jaso, abenduaren 18an Usurbilgo frontoian, Santomas azokan. Asteburu horretan iritsiko dira saskiak gure artera.

Gospel saio gogoangarria



Jon Imanol Etxabe herritarra lau abeslarietako bat izan zen.

Euskal Herriko herri gehienetan jada martxan jarri dira eragileak eta Euskaraldia girotzen joateko ekitaldiak egiten hasi dira, eta jakina, baita gurean ere. Horren adibide da, igande arratsaldean borobildu zuten “Goiko gela” gospel taldearen ikuskizuna.

Gospel kantu klasiko ezagunenak moldatu eta euskaraz kantatu zituzten. Ikuskizun bizi eta alaia eskaini zuten gospelaren bihotzetik euska-

rari keinu eginda. Hizkuntz ohiturak kantuan ere aldatzeko aukera aproposa izan zen.

Aukera aparta

Jon Imanol Etxabe herritarra lau abeslarietako bat izan zen. Ia leporaino bete zuten Sutegi eta umore ona zein txalo zaparradentzat aukera paregabea izan zen. Ez da ohikoa gospelaz gozatzeko aukera izatea, eta jendeak ondo hartu zuen “Goiko gela” taldeak eskainitako lana.

Garbigunea zabalik berriz ere



Atalluko Garbiguneak atek zabaldu ditu berriro.

Covid-19ak eragindako osasun krisialdiagatik itxita egon den Garbiguneako berrerabilera txokoa zabaldu dute berriz. Irekiera hau ordea moldaketekin dator. Itxi aurretik egiten zen kudeaketa aztertu eta alaketaren bat izango da aurrerantzean.

Jaso ostiraletan, utzi egunero

Bertan utzitako gauzak ostiraletan jaso ahalko direla ohartarazi du Udalak Garbigunea zabalik izango den ordutegia-

ren baitan. “Bertan dauden materialak ikusteko ere aukera soilik ostiraletan izango da, gainerako egunetan itxita egongo baita”. Gauzak utzi aldiz, nahi denean, Garbigunea zabalik den ordutegian utzi ahalko dira, astelehenetik larunbatera.

Atalluko Garbigunea, ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 10:15-12:50/16:00-18:50.
- Larunbata: 9:00-12:50.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Kaxkoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. Telefonoa/WhatsApp: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da.

649 429 416

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik emango dizkion pertsona baten bila gabil-

tza. 608201745

Klase partikularrik emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat nabil. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest da goen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zain-tzeko prest eta esperimentziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrik emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperimentziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zain-tzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan

zein igeltsiritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritza. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patioarako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neur-tzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Heriotzak**Benito****Aizpurua Iribar**

Azaroaren 5ean hil zen, 92 urterekin

**Heriotzak****Maria Lourdes****Agirre Mujika**

Azaroaren 6an hil zen, 71 urterekin

**Heriotzak****Juanita****Zubizarreta****Aristi**

Azaroaren 6an hil zen, 101 urterekin

**Pilota partidak****Azaroak 11, ostirala****Usurbilgo frontoian, 18:00tan:****Alebinak:**

Pagazpe (Alejo E.)
LAPKE (Lizaso)

Pagazpe (Mundarro)
Mundarro (Aldazabal)

Pagazpe (Soroa)
Hernani (Oiaga)

Infantilak:

Pagazpe (Iribar)
Arrasate (Korta)

Pagazpe (Indakoetxea)
Intxurre (Leo)

Pagazpe (Jauregi)
Intxurre (Garaikoetxea)

Eskubaloit partidak**Azaroak 12, larunbata:****Kadete neskak:**

Urbil-Usurbil KE-Ordizia
(17:00, Oiardo)

Kadete mutilak:

Ereintza Aguaplast-Usurbil KE
(17:45, Beraun)

Jubenil mutilak:

-Ereintza Aguaplast
-Saizar-Usurbil KE
(15:30, Galtzaraborda)

Senior mutilak:

-Escolapios A-Usurbil KE
(16:00, Escolapios eskola)

Selekzioaren deia

Iker Nazabal eta Peru Iraeta
Usurbil KEko jokalariek euskal selekzioaren deia jaso dute.

**Zorionak Ekhi!**

Ondo pasa azaroaren 9an, zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoan partez. Maite zaitugu.

Futbol partidak**Azaroak 12, larunbata Haranen:**

■ 9:00-11:00 Eskola Kirola.

■ 11:15 Infantil neskak:

Usurbil FT A-Intxaudi KE A.

Usurbil FT B-Hernani CD.

■ 12:45 Kadete preferenteak:

Usurbil FT-Beasain SD B.

■ 16:00 Jubenilak:

Usurbil FT-Zarautz KE C.

■ 18:15 Erregionalak:

-Usurbil FT B

-Arrupe Chaminade CD.

Azaroak 13, igandea:

■ 10:00-12:30 Futbol Eskola.

Goardiako farmaziak

Osteguna 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 17 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda azaroa

11 ostirala

■ **NOAUA! Kulturaldia: "Frankenstein agurgarria" Errezitaldi Mutantea.** 20:00etan Sutegin. Sarrerak: 10 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan, aurrez erosita NOAUA!ren egoitzan.

12 larunbata

■ **Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa.** 17:00etan Txokoalden.
 ■ **Arkaitzerrekako ibilaldi gidatua.** Abiapuntua, 10:30ean Zubietako plazatik eta Usurbilgo frontoitik. Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

13 igandea

■ **NOAUA! Kulturaldia: "Magma Mia" bakarrizketa saioa.** 18:00etan Sutegin. Sarrerak: aurrez 8 eurotan salgai usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA!ko bazkideek 6 eurotan aurrez erosita, NOAUA!ren egoitzan.

Xake ikastaroa antolatu dute Santuenean

Aurreko astean abiatu zen xake ikastaroa eta urtea amaitu bitarte ostegunero batuko dira, 17:30-19:00 bitartean. Sei klase izango dira guztira eta Santuenea Elkartearen eskainiko ditu Jose Luis Guijarrok, Gipuzkoako xake txapelketan bost aldiz txapeldun izandakoak.

Dena ondo bidean, Gabonetan Santuenean antolatuko duten azokan xake erakustaldia egingo dute. Interesa duenak, hemen du antolatzaileekin harremanetan jartzeko modua: 670 027 731.



Jose Luis Guijarrok eskainiko du Santueneko xake ikastaroa.



Ixabel Agirresarobe Txokoalden

Txokoargik antolatuta, Usurbilgo ipuin-kontalaria Txokoaldeko auzo elkar-tearen egoitzan izango da larunbat honetan. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna.



Zorione Mendezen erakusketa Artzabalen

Zorione Mendezen 'Marrak 2.0' sortze-lanen erakusketa ikusgai izango duzue asteotan Artzabal jatetxean. Aurreko astean Artisau Azokan hartu zuen parte. Argazkia orduko da.

Datozenak

Sutegiko udal liburutegian Azaroak 15, asteartea

■ 19:00 Garbiñe Larrearekin Sendabellarrek dakitena liburua aztergai.

Azaroak 30, asteazkena

■ 19:00 Idoia Garzes idazlearen Mendi-ko gaitza (Elkar) liburua hartuko dute ahotan. Egilea bertan izango da.



Idoia Garzes Lasarte-Oriako idazlea Sutegin izango da azaroaren 30ean.

Euskaraldiko deialdiak

Azaroak 18, ostirala

■ Euskaraldiaren hasiera.

Azaroak 20, igandea

■ Euskaraldia plazara. Zumarte Musika Eskolako eta Orbeldi Dantza Eskolako kideen emanaldia. Tokia eta ordua zehazteke oraindik.

Abenduak 3, larunbata

■ Euskaraldiko gala. "Amaiera dotorea emango diogu aurtengo edizioari Aginagako Eliza Zaharrean.



EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
 943 361182



ADA
-MASAJEAK-
 633 36 22 33
 erreka-txiki 1, USURBIL



Otar-Goxo
 Elikagaiak
 Zubiaurrenea, nº2
 ☎ 943 36 55 81
 20170 Usurbil



Zubiaurrenea 8
 ☎ 943 370 008

ETXEKOA, BERTAKOA

HERRIKOEN ZERBITZUA
BAINA HOBERIK BA AL DAGO?



Atetik sartzen
den bezero
bakoitzak
ematen die
bizia herriko
merkatariei.
Zuek ematen
diozue bizia!



hurbilag
USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA



gertuago.eus

Hur bilagokoa da eta dugu HURBILAGOKO
denak berak eta promisiak



Azaroak 19

10:00 Harrera.

10:30 Mahai ingurua: zer da Usurbilgo zaintza ekosistema?

11:30 Bizipen tailerrak: komunitatea, zerbitzuak, pertsona erabiltzaileak eta gizarte zerbitzuak.

13:00 Bisita gidatuak, Txirikordara eta zaintzadun etxebizitzetara.

13:45 Itxiera ekitaldia, Beatriz Egizabalekin, eta luntxa.

Pertsonak ardatz,
zaintzak eraldatzen!



IZEN EMATEAK

gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus 943 37 71 10
www.usurbil.eus/zaintza-azoka

Hitzaldi zikloa

Azaroak 17. Zaintza lanen demokratizaziorantz: etxeko langileak borrokan.

Abenduak 15. Zer dira zaintzen duten herriak?.

Urtarrilak 27. Zaharrak gara eta libre.

Zatoz Usurbilgo zaintza ekosistema ezagutzera!